

"TARTUFO" BILBON

ANTZERKI-LAN NAGUSIAK

Munduko antzerkitegian ba-dira «nagusiak» izendatu leikezan lan batzuk, eta onein artean, zalantza barik Molière'n «Tartufo» da bat. Ondo egiña, irakatsi aundikoa aldi guztietarako, elertian eztabaida-bako garrantzia daukana... Bilbo'ko jaietan eta Adolfo Marsillach zuzendari dala antzerki-lan eder au ikusteko erea izan dogu aurten. Aztertu dagigun pizka bat.

ALDAKUNTZAK

Adolfo Marsillach'ek bere erara agertu edo antzeztu dau elerti-lana: Guztiz gaurkotuta, ikus leak errez-errez esangurea artzeko eran eta Moliere'n oiñarria edo aria galdu barik.

Egia esan, neuk naiago izango neban, antzerkia dan lez antzeztu ba'leu, eta gaurkotze-lana neuk egingo neban, erreztasun aundiaz egin be. Baiña onetan ikusle bakoitxak bere eritxia izan daike eta ez ni iñor ori ezeztuteko. Nitzat pozik aundiena Moliere'k idatzi eban lez antzerkia ondo antzeztuta ikustea izango zan.

IKUSLEAK

Ikusledari begira, nitzat gauzarik arrigarriena ikuslerik geienak gazteak zirala jakitea izan zan. Olako antzerkiak lenago zarren eta aberatsen gogo janari eztitsua izaten ziran, baiña ainbeste gazte aretoan ikustea pozgarri izan jatan.

Antzezlariak aldi egoki batzutan jente-artetik urten eta ager-tokira urreratzea, aspaldiko oiturea dogu antzerkietan. Barrikeriak egin bear gaurkotzeko edo olako barri-usaiña emoteko. Ez dago txarto.

Eta agertokia bera be, Molière'n oarrak kontuan artu barik eta oso egokia izan zan. Aldakuntza aundi barik, Moncloa izan zeitekean etxe eder aundi bat beti aurrean dala, autor-lekuak ara ta ona, zentzun aundi barik, aldatzen dirala, bear diran erredizak etxearen azpitik, ateetatik ateraten dirala...

* * *

KUNTZE EDO SEKSU-ARAZOA

A spaldiko zine ta antzerkietan kuntze edo seksu-arazoa nabarmen agertzen da, nabarmenegi bear ba'da, eta antzerki onek be, berez, eskintzen eban olako zerbait agertzeko erea: Tartufo'ren maite-min zoroa eta azalutsak agertzen edo gazteen maitemiña erakustean.

Baiña orretan Marsillach'ek ez dautso ikusleen egarri lizunari ezelako pozik emon. Irudibidez eta Valle-Inclan'en «esperpento»-tankeraz. Bear ba'da aldakuntza au be ez da ain egokia izango gaurko ikusle(\ntzat.

* * *

POLITIKALARIAK

Molière'k berak be antzerkia idatzi ebanean gogoan eukan politika-arazoa eta Sdkramentu-Bazkunekoentartufokeria, baiña bere antzerkia bizitzako beste egoera asko aztertzeko be egokia zan. Marsillach'en antzez-bide onek, ostera, ez dauko politikearena baiño beste urtenbiderik. Ikuspegi bat artuz, idaz-lanaren zabaltasuna gitxi-Eu egin dau.

Moncloa'ren aurrez eta Suarez jaurleri-buruaren aurrean Tartufo nor dan argi gertzen da, bear leiteken baiño be argiago bear ba'da. 9

* * *

TXALO OTZAK

Ikusleen txaloak otzak izan ziran geure ustez. Antzezlariak naikoa ondo egin eben euren lana, gaia guztiz aurkoa ta interesgarria izan zan, aretoa beterik egoan... Tergaitik orduan ain txalo urriak eta otzak? Euskal-ara agertzen ez zalako? Ez da erreza izaten ikusleen ?rantzupena neurtzea!

* * *

EZIBIDE

Gure eritxi-emote au amaitzeko, gauzatxu bat baka-ra gogoratu geunskie irakurleai: Antzerkia erriaren zibidean izkillu gogoangarria dogula eta guk euskaldunok be ez geunkala baztertzen dogun, bestean baztertuzear. Izan beitez itz oneik gure antzerki-idazleak eta antzezlariak indartzeko ta adoretzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek